



bai

ziurtagiridunen aldizkaria

XABIER MENDIGUREN

“Bai Euskarari Ziurtagiriak erakutsi
du lan munduan euskara sartzea
eta erabiltzea posible dela”

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

2. alea
2010eko maiatza



artez

euskara zerbitzua

Gure konpromisoa

euskara hobekuntza *kalitatea*

berrikuntza bikaintasuna berdintasuna

ingurumena *ekologia* pertsonak

kultura jendarte **hizkuntza**

lan-taldea lana *garapena*





Rober Gutiérrez
Zuzendaria

Euskararekin kalitaterantz

Bai Ziurtagiridunen Aldizkaria guztiona eta guztiontzako izango zela esan genuen, abenduan, lehen alea argitaratu genuenean. Eta horretan ari gara, Bai Euskarari Ziurtagiria duzuen entitateongandik jaso ditugun berriak biltzen eta lantzen. Bigarren ale honetan gainera, lau orrialde erantsi ditugu zuei ahalik eta informazio gehien helarazi nahian. Beraz, aurrera begira ere zuen entitatearen inguruko berriren bat baldin baduzue, edota euskara eta lan munduarekin zerikusia duen informazioaren bat eman nahi baduzue, jarri gurekin harremanetan 902 430026 telefono bidez edota komunikazioa@baieuskarari.org posta-elektroniko bidez.

Euskarak merezi du eta zuek ere merezi duzue, euskara erabiltzeak onura asko baitakartza: irudi hobea, lehiakortasuna, profesionaltasuna, gertutasuna, konfiantza, berritzaile izatea, merkatu aukerak zabaltzea... Euskara darabilen enpresa batek erabiltzen ez duen beste baten aldean balio handiagoa izango du, lehiakorragoa izango da: merkatuan lehiakideek baino posizio hobea irabaziko du, merkatu berrietan sartuko da, bezero kopurua handituko du eta etekinak areagotuko ditu. Honengatik guztiagatik, merezi du.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkarte
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943 592148
www.baieuskarari.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkarte
eta Kultur Atelier

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Jokin Larrañaga

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Kultur Atelier

Inprimatzailea:

Juaristi

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkarte

Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkaria diruz lagundu duten entitateak:

Itzarri S.L.

ABESTI BAKOITZARENTZAT PINTXO BAT

Donostiako **A Fuego Negro** jatetxeak, Fermin Muguruzarekin batera, **Pintxatu** izeneko liburu-diska osatu du. Autoprodukzio hau berritzailea da musika eta gastronomia uztartzen dituelako. Hala, hemengo nahiz atzerriko musikariek sortutako abesti bakoitzarentzat errezeta bana prestatu du **A Fuego Negro**.

Pintxatu liburu-diska lau hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. 19 abesti biltzen dituen CD-ak eta beste horrenbeste errezeta dituen libru-xkak osatzen dute **Pintxatu**. Errezeta bakoitza gainera, Alex Iturraldearen argazki batekin eta David Navascuesen ilustrazio batekin dator.

www.afuegonegro.com/ikasi.html

PINTXATU



JOKIN LARRAÑAGA

Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko zuzendaria

Gakoa: instituzioen eta herritarren arteko elkarlana



Euskarazko eskariaren eta eskaintza-
ren arteko lotura egiteko gizartean
eta administrazioan bideak sustatzea
da uneotan Arabako Foru Aldundiko
Euskara Zerbitzuaren helburu nagusia.
Eta horixe bera dio duela gutxi onartu
dugun eta askoren artean sortua den
Euskararen Plan Estrategikoak ere.
2010etik 2013ra bitartean garatuko
da berau, dena den, urte honetarako
zenbait egiteko finkatu dira: langileei
erabilera areagotzeko tresnak ematea,
euskarazko eskaintza bermatzea eta
esparru berrietara zabaltzea, euskarazko
eskaintza erakargarria egitea, Arabako
euskal kulturgintzan diharduten elkarte
eta erakundeen artean komunikazioa
elkar-trukatzeke eta koordinazio ego-
kia izateko sarea eratzea, instituzioen
inplikazioa lortzea, Arabako gizarte
osoan denon ondarea izan behar duen
euskara berreskuratzeko hezkuntza

komunitate osoaren gogoeta, forma-
zioa eta partaidetza lortzea, eta azke-
nik, Arabako merkatu euskaldunaren
eskariari erantzuteko eta dagoena
sustatzeko merkatariak eta ostalariak
sentsibilizatzea.

Ahaleginak ahalegin, alferrik izango da
erakundeen aldetik plan dotorea eta
oso landua, herritarren onespina eta
adostasunik ez badu. Izan ere, herri-
tarren babesik gabe ez du arrakastarik
izango. Jendearen partaidetza behar
da, uneoro, diru-laguntzak emateko or-
duan, eta hasiera-hasieratik, diagnosia
egiterakoan, planifikazioan, eta egune-
roko eginkizunetan. Ez da posible gure
ustez, erakundeak alde batetik joatea
eta bestetik herritarrak. Joshua Fish-
manek berak ere aipatzen du *“hizkuntza
bat biziberritzeko ezinbestekoa izango*

*da herritarren atxikimendua eta hizkun-
tzaren aldeko jarrera eta konpromisoa”*.

Euskal Herrian besteen lana aintzat
hartzea eta errekonozitzea beharrezkoa
da, baldin eta elkarlanaz hitz egin nahi
badugu. Zentzu horretan, onartu beha-
rra dago, Ziurtagiriaren Elkartearen lana
estimatzeke modukoa dela, instituzioak
iristen ez diren lekuetara bide propioz
iristen dakielako. Kontuan izan behar
dugu, halaber, hezkuntza esparrutik at
gauza gutxi egiten zela era antolatuan
normalizazioaren alde. Gaur egun hain
ohikoak diren enpresa-munduko eus-
kara planak, neurri handi batean, Ziur-
tagiriaren Elkarteari eta Bai Euskarari
Ziurtagiriari esker jarri dira abian.

Noizbait instituzioek eta herri-erakundeek
bide bera egingo ahal dute!



ELHUYAR
aholkularitza

**Parte-hartzea
eta talde-lana**
oinarri,
hobekuntza
helburu



... eta laster,
Bilbo Handian ere
Elhuyar Aholkularitza

Jarri gurekin harremanetan!

aholkularitza@elhuyar.com

www.elhuyaraholkularitza.net

Zertan egiten dugu lan?

- Euskara planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara planak udalerrietan:
lan-mundua, merkatariak, gazteak...
- Hizkuntza normalizatorako bestelako aholkularitza:
laneko euskara moduluak, hizkuntza jarrerak lantzeko
prozesuak, laguntza materialak...
- Herritarrekin parte hartzeko prozesuak:
hiringintza, berdintasuna, gazteak...



Xabier MENDIGUREN

Kontseiluko Idazkari Nagusia

Kargua uzteko bezperetan Xabier Mendigurenekin egon gara orain arteko ibilbideaz mintzatzeko eta baita etorkizunera begira zein aurreikuspen egiten dituen jakiteko ere.

12 urteren ondoren Kontseilua uztera zoaz. Penaz?

Penaz ez. Mundura noiz etorri ez dugu aukeratzeko. Noiz joango garen ere ez dugu aukeratuko seguru asko. Baina bitartean gauzak egiten dira epe batzuen barruan. Kontseiluarena ere nik epe baten barruan ikusten nuen eta epe bezala jarri nuen 65 urte betetzea. Nik aldezturik esaten nuen hori muga bat izango zela. Eta ez niretzat pertsonalki muga bat delako, baizik eta iruditzen zaidalako epe bat pasatakoan ona dela aldatzea. Nire ustez Kontseiluaren moduko erakundeetan arduradunek ez dute luzeegi egon behar. Laburregi ere ez, gauzak egin behar direlako. 3 hasi eta 32 izatera iritsi gara 12 urtean, horrek esan nahi duen guztiarekin. Hainbat proiektu abian jarri dira eta nire ustez Kontseilua

une honetan garapen fase batean dago eta momentu egokia izan liteke aldaketarako, pertsona berriak sartzeko.

Zein egoeratan utziko duzu Kontseilua?

Kontseiluak ibilbide luzea egin du eta sendo dago. Hainbat proiektu abian jarri ditu. Horietako bat da Bai Euskarari Ziurtagiria. Eta hori bezala Hizkuntza Eskubideen Behatokia. Bi proiektu hauek izan dira Kontseiluaren zutabe garrantzitsuak. Gero, beste aldetik, alor politiko-instituzionalean ere pausu nabarmenak eman dira. Batez ere, udalerrri mailan lan nabarmena egin da eta egiten jarraitzen dugu. Beraz, iruditzen zait, hasieran Kontseilua zer izango zen eta zer lan egingo zuen argi ez zegoen arren, hamabi urte hauetan egindako lan eskergagatik eta ekarpen oparoen-

gatik bere beharra frogatuta geratu dela. Egin den lanari begiratuta, nabarmen-tzekoa da izan dugun eragina bai Euskal Herri mailan eta baita Euskal Herritik kanpo ere. Kontseilua itxaropenez eta indarrarekin etorkizunari aurre egiteko moduan dago. Egia da normalizazioa oraindik urruti dagoela, baina tresna indartsu batzuk sortu dira, jende-talde ondo prestatu bat ari da lanean eta nik uste dut momentu egokia dela horrelako aldaketa bat bideratzeko. Beraz, horregatik ere ni itxaropentsu eta pozik nago.

Beraz, joandako 12 urte horien balorazio ona egiten duzu?

Bai, ona egiten du. Ez dut egiten guztiz ona, zeren nahiago nuke hurbilago egon normalizaziotik. Eta oraindik hor

“Bai Euskarari Ziurtagiria maila handiagoan eta baliabide gehiagorekin Euskal Herri osora zabaldu behar da”

badauzkagu gauza asko hobetzeko. Egin duguna garrantzitsua eta handia izan da, baina egiteko duguna ere handia da, eta beraz, lanean jarraitu behar dugu. Baina nondik gatozen ikusita, 12 urte geroago atzera begiratzean, uste dut pozik egiteko moduko lana egin dugula. Kontseilua gainera Euskal Herri osoan lanean ari den erakundea da. Alderdi horretatik ez gara, zoritxarrez, gehiegi Euskal Herri osoaz arduratzen garenak. Kontseilua da erakunde bat euskaraz lan egiten duena, Euskal Herri osoko jendearekin eta Euskal Herri osoan. Hori ere uste dut oso kontuan hartzeko lorpena dela.

Maila pertsonalera jauzi eginaz, zuk zer eman diozu Kontseiluari?

Nik uste dut ezagutza eman diodala. Esango nuke aurretik euskalgintzarekin neukan harremanarengatik eta bere ezagutzarengatik proposatu nindutela idazkari. Nik praktikan 40 urte eman ditut euskararen munduan lanean. Oso gaztetatik topo egin nuen euskararekin. Familia euskaldun batekoa naiz, eta euskara sistematikoki ikasi ahal izan nuen ikastetxean eta gero hortik hasita hizkuntzaren munduan ibilitakoa naiz. Horren guztiaren ondoren etorri zen Kontseiluaren sorreran parte hartzea. Euskararen Unibertsoa izeneko mugimenduan urte pare batez ibili ondoren, proposatu zidaten idazkari izatea. Beraz, nik ikusten dut Kontseiluaren sorreran proposamen hori jasotzea aurretik egin nuen ibilbide luze horren nolabaiteko ondorioa izan zela. Horrezaz aparte, ni saiatu naiz Kontseiluan ahalik eta kohesio mailarik handiena lortzen eta Kontseiluan egon daitezkeen edo dauden ikuspuntu desberdinak lotzen eta lanerako elkartzen.

Eta Kontseiluak zuri zer eman dizu?

Niri Kontseiluak gauza asko eman dizkit. Euskal Herriko egoera eta errealitatea oso ondo ezagutzeko aukera eman dit hasteko eta alderdi horretatik pribilegiatua sentitzen naiz. Euskal Herriaren ezagutza hori ez nuen sekula izango horrelako ardura batean egon izan ez banintz. Beste alde batetik, nazioartean harremanak izateko aukera ere eman dit. Horrezaz aparte, Kontseiluak lankide talde oso onarekin, eta benetan bokazio handiko jendearekin lana egiteko aukera eman dit eta hori ere ez dut ahaztuko. Ikusi dut benetan oraindik jendea badagoela ilusioarekin lan egiten duena proiektu interesgarri bat dagoenean. Oso esker oneko sentitzen naiz gizartearekin ere. Eta gizartea esatean, esan nahi dut Euskal Herriko hainbat erakunde, instituzio, enpresa eta era guztietako entitateetako kideak, eta herritarrak, oro har.

Ibilbide honetan gogoratzen dituzun momentu on bat eta txar bat aipa zenuk?

Txarrena, Egunkariaren itxiera eta Martin Ugalde Kultur Parkean izan diren erasoak. Horiek dira benetan kezkatu nautenak eta min eman didatenak. Baina onak ere asko izan dira. Nabarmenduko nuke momentu askotan Euskal Herriko toki ezberdinetan ikusi dudana ilusioa eta gogoia euskarak bere lekua har dezan eta euskara eguneroko hizkuntza garatu bihur dadin.

Urte hauetako lorpen nagusiak zein uste duzu izan direla?

Lorpen nagusia izan da tresna garrantzitsu batzuk sortzea: Bai Euskarari Ziurtagiria eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia.

Bai Euskarari Ziurtagiria aipatu duzu Kontseiluaren lorpen nagusietako bat moduan. Gero, Kontseiluak Ziurtagiriaren Elkartea sortu zuen Bai Euskarari kudeatzeko. Orain ze lotura dago Kontseiluaren eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren artean?

Dagoen lotura da erakunde horretan % 50 duela Kontseiluak. Baina Elkarreak badu administrazio kontseilu bat gainerako partaideen ordezkariarekin eta denon artean kudeatzen dugu. Segur aski etorkizunean partaide gehiagok parte hartuko balute eta indartuko balitz, instituzioen parte-hartze batekin, ba Kontseiluaren partaidetza gutxitu egingo litzateke. Hori ez litzateke Elkarrearen kalterako izango, baizik eta balioko luke Elkarrearen proiektu propioak indar gehiago izan dezan eta aurrera joan dadin.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren eboluzioa zein izan da bere sorreratik? Eta eboluzio horren zein balorazio egiten duzu?

Garrantzizkoa da Euskal Herri osoan zabaldu izana, baina badaude hedapean hutsune nabariak. Gehiago sakondu beharreko gizarte sektoreez eta gune geografikoez ari naiz. Ziurtagiriaren Elkarreak dauzkanak baino askoz baliabide gehiago behar ditu. Nik uste dut bide on bat egin duela, baina baliabide mugatuarekin. Eta gero zoritxarrez, instituzioen aldetik ez da lortu sinergia egokirik helburu berarekin lanean aritzeko. Uste dut hor badagoela zer pentsatua, zer gogoeta egin, eta akordio bat lortzea posible dela instituzioen eta Ziurtagiriaren Elkarrearen artean eta hori izango litzatekeela nahigarria, desiragarria eta erdi-epe batean lortu beharreko zerbait. Azken batean, indarrarekin eragin nahi badugu lanaren munduan behar-beharrezkoa da Elkarrea zabaltzea alde



batetik, eta bestetik, instituzioen parte hartzea.

Ziurtagiriak zer garrantzi izan du euskararen normalizazioan eragiteko bide horretan?

Ziurtagiriaren bitartez ideia bat eta ondoren errealitate bat aldatuz joan da. Ideia da, denok daukagula zeregina gure eskuetan. Hau da, edozein lekutan, bai enpresa handietan eta bai denda txikietan, bertan dauden kudeatzaileek, arduradunek, langileek... denek daukatela zeregina euskararen erabileran. Hau da, hau ez da besteek egin behar duten zer-bait. Geure eskuetan daukagu euskara erabiltzea edo ez erabiltzea. Eta bestetik, lehen inoiz euskararen alde urrats bat egiten ez zuten toki askotan ohiturak aldatzen hasi dira. Pentsa zenbat erro-tulu, zenbat inprimaki, zenbat nomina jarri diren euskaraz, eta zenbat pertsona saiatu den euskara ikasten, zerbitzua euskaraz ematen eta lana ere euskaraz

egiten ahal den heinean. Hori da azken batean bultzatu behar den dinamika. Hori errealitate bilakatu da jada. Baina behar duguna da askoz ere maila handiagoan eta baliabide gehiagorekin Euskal Herri osora hedatzea. Dena den, Bai Euskarari Ziurtagiriak zenbait pertsonari erakutsi dio ezinezkoa ematen zuen zer-bait eta erdi ahaztuta geneukana: lan munduan euskara sartzeta eta erabiltzea, egin litekeen zer-bait dela eta denborarekin eta plangintza egoki batekin eta laguntzarekin hori lortu egiten dela.

Zer dago oraindik lortzeko?

Ziurtagiriaren banaketa kopuru handietara eramatea lortu behar dugu. Bai Euskarari Ziurtagiria ez da dokumentu bat ematea eta hartzea. Hori baino askoz gehiago da. Dokumentu horrek errealitatea aldatzea eskatzen du eta aldatzen ari da. Baina aldatze hori bizkortu eta indartu egin behar dugu eta horretarako baliabide gehiago behar dira. Bai hedapena egiteko eta bai hori kontrolatu eta neurtzeko ere. Horretarako instituzio, gizarte-mugimendu eta Ziurtagiaren Elkartearen arteko elkar-hartze indartsu bat sortu beharko litzateke. Hori gabe bizitza neketsua eta luzea izango du prozesu honek. Gaur egun gazte askok euskara jakin badaki, baina ikasketak amaitu eta lanera joaten direnean ez badago inolako bide eta aukerarik hor euskara erabil dezaten, ba, ez dugu aurrera egingo. Beraz, lanaren munduak prestatu behar ditu bere egiturak, datorren belaunaldi berria, euskara dakiena, bere baitan hartu eta bere hizkuntzarekin kokatzea ahalbidetzeko. Lanaren mundua euskalduntzeak gero eta garbiago utziko du txikitatutako euskara ikasteak daukan garrantzia eta lanaren munduan sartzeko horrek emango dien erraztasuna.

Gizarteko alor guztietan euskararen normalizazioa lortzeko zer lan ikusten duzu oraindik egiteko?

Izugarria. Lehenengo eta bat, EAEn helburu hoberenak lortzen diren tokian bertan, oraindik kopuru handia daukagu eskola-aroa bukatzean euskara menderatzen ez duena. Hori argi eta garbi esan behar da. Zeresanik ez Nafarroan edo Iparraldean. Lehenik horrekin amaitu behar da eta gero hortik sortzen den defizit guztiarekin. Oraindik pertsona asko ez dago prestaturik, ez da gai zenbait lan euskaraz egin ahal izateko. Askotan, ezta bezeroei zerbitzua euskaraz emateko ere, eta hori kalitatezko lan baten baldintza ezinbestekoa da. Hori egiten ez duen enpresa edo erakundea ez da ari egin behar duena egiten. Beraz, ez da ari kalitatezko lan bat egiten. Lortu behar da Euskal Herrian kalitate-maila hori erakundeek eta enpresek ematea. Beraz, uste dut lan hori dela egiteko dagoena.

Orain urtebete inguru gobernu-aldaketa izan zen EAEn. Ikusten duzu gobernu-aldaketa horrekin hizkuntza-politikan ere aldaketarik etor litekeenik?

Borondate apur bat ikusi zen hasieran izandako hartu-emanetan. Gutxienez elkarrekin gauzak planteatzeko edo eztabaidatzeko aukera ikusi genuen, baina azken aldiaren aldaketak izan dira eta egia esan, horrek pixka bat kezkatu egiten nau, nolabait egonezina edo irizpide finkorik eza adierazten duelako.

Berriz ere plano pertsonalera itzuliz. Hemendik aurrerako zer asmo dituzu?

Nik uste dut euskararen inguruko lanetan ariko naizela. Beti idaztearekin, itzultzearekin eta antzeko gauzeekin lotutako zereginetan ibili naiz eta ez dut uste ia asko aldatuko naizenik. Bestalde, sortzen diren proiektu eta hainbat gauzetan partaide izan ninteke. Lagundu dezaket eta irekita nago proposamenetara eta neuk egin dezakedanera. Prest nago gauza berriak ikasteko eta gauza berrietan jarduteko.



GOZATU



Zure aisia gozatzeko tresnak dira liburuak, diskoak, DVDak...

Horiek guztiak eskura jartzen dizkizu **elkar txartelak**, deskontu, promozio berezi eta beste hainbat abantailekin.

gozatu aisia
gozatu txartela

elkar



HIZKUNTZEN INDUSTRIA AKTIBATZEKO, LANGUNE

Gipuzkoa Berritzen-Innobasqueren eta hizkuntzen industria-
ren sektoreko hainbat eragileren ekimenez, 2010eko urtarri-
lean LANGUNE elkarte sortu zen Donostian.

Globalizazioak dakarren mugikortasunaren eta eleanizta-
sunaren ondorioz, sektore ekonomiko garrantzitsua ari da
pizten: Hizkuntzen Industria. Euskal Autonomia Erkidegoan
sektore honek badu ezarpen tradizionala, eta dinamizazio-
prozesu baten bidez sektore ekonomiko-industrial hori anto-
latu eta aktibatzea du helburu elkarteak.


LANGUNE martxan jartzeko lanean aritu den taldearen di-
namizazioaren ardura Elhuyar Fundazioak izan du, eta orain
elkarteko bazkide da. Horrez gain, elkartearen lehendakaritza
ere Elhuyarren ardura izango da ekaina bitartean.

Honekin guztiarekin hizkuntzen industriaren alorrean EAE
Europar erreferentzia bilakatzen lagunduko duen ekimena
jarri nahi izan da abian. Horretarako, sektoreko agenteak
identifikatu dira, eta, sektorearen erronkak garatuz eta era-
gileak antolatuz, urratsak egiten hasi dira sektorea elkartuko
duen egitura edo cluster baten beharra aztertzeko.

JAPONIAREKIN HARREMANAK EUSKARAZ

GoiHata S.L. nazioarte-esparruko enpre-
sa da eta Japoniarekin harremanak izan
nahi dituen edozein enpresa edota elkar-
tek jo dezake beregan. Bere jarduera
nagusiak **Itzulpengintza** nahiz **Interpreta-
zioa**, eta **Japoniaren inguruko aholkulari-
tza** dira. Zentzu horretan GoiHata S.L.-ren
nahia da Euskal Herriaren eta Japoniaren
arteko harremanak euskaraz bultzatzea.
Horretarako euskaratik japonierara eta
japonieratik euskarara itzultzeko hiztegi
bat jarri du bere webgunean:

www.goihata.com/eu/japoniera-hiztegia



EGIN APUSTU EMOZIOAREN ALDE, EGIN APUSTU EUSKARAREN ALDE!



Ia bi urte dira **RETA**-k bere jarduera hasi zuela. 2008ko abuztuan Bilboko Alde Zaharrean (Somera kalea, 45) kirol-apustuen alorrean EAEko lehen denda ireki ondoren, **RETA** kirol apustuen sektorean presentzia handiko enpresa bilakatu da. Gaur egun, 12 denda ditu guztira EAEn eta 500 terminal ostalaritzako hainbat gunetan zehar banatuta. **RETA**-k 35 kirol-modalitate baino gehiagotan apustu egiteko aukera ematen du; kirol horietako zenbait oso errotuta dau-de gure ingurunean: pilota, herri kirolak eta txirrindularitza, adibidez; beste batzuek berriz, garrantzia handia daukate nazioarte mailan: futbolarak, saskibaloiak edota 1 formulak, esaterako.

RETA-k hasieratik kirolaren eta kirolarien aldeko apustua egin nahi izan du. Hala, Real Sociedad, Bizkaia Bilbao Basket edota Lagun Aro GBC-ren moduko taldeei eta Ainhoa Muruaren pareko kirolariei babesa eman die. Urtero EAEn ospatzen diren ekitaldi garrantzitsuenetan ere parte hartu ohi du **RETA**-k; adibidez, Behobia-San Sebastian lasterketan,

Euskal Herriko Itzulian edota TKE Ligan. Estropadak irauten dituen hiru hilabeteetan zehar ere, estropada-zelaietan bi makina jartzen ditu zaleek bertan egin ditzaten euren apustuak astebururo.

Hori dela eta, kirol-guneetan egiten diren zuzeneko apustuek (Bizkaia Arena, Donostia Arena, TKE Ligako estropada-zelaiak...) arrakasta handia izan dute kirola emozio handiarekin eta zuzenean gozatu nahi dutenen artean. Ikusleek ekitaldia hasi baino ordubete lehenagotik ekitaldia amaitu arte egin ditzakete apustuak Anoetan, BEC-en eta Donostia Arenan **RETA**-k jartzen dituen makinetan.

RETA-k dio bere filosofia “euskal proiektua mantentzearen aldekoa” izan dela beti, “euskararen bitartez enpresa barruan zein kanpoan aurrera eramaten diren ekintza guztietan”. Horri guztiari esker, “Zerbitzua Euskaraz” mailako Bai Euskarari Ziurtagiria lortu ahal izan du, eta orain Bai Euskarari Ziurtagiriaren goreneko maila lortzeko bidean jarraitzeko lanean dihardu.

RETA-ren eskaintza guztia bi hizkuntzatan dago: euskaraz eta gaztelaniaz, nola dendetan, hala **RETA** makinetan, Bezeroaren Arreta Zerbitzuan edota web orrian (www.reta.eu). Era berean, marketing eta komunikazio-kanpaina guztiak hizkuntza bietan eramaten ditu aurrera. Enpresaren esanetan, jendeari euskararen garrantzia helarazten saiatzen dira, eta batez ere, “kirola emozioz eta hizkuntzarekin batera bizitzeko ideia transmititzen”.



IPUIN LEHIAKETA, EUSKARAREN ERABILPENA BULTZATZEKO

Diocesanas ikastetxeak Arabako ikasleen artean euskararen erabilpena eta euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzeko asmoarekin Ipuin Lehiaketa bat antolatzen du urtero, lurraldeko ikasle guztiei zuzendua. Aurtengoa lehiaketaren 8. edizioa da eta maiatzaren 14ra arte irekita dago lanak entregatzeko epea.

Ipuinak hiru kategoriatan aurkez daitezke:

- Lehen Hezkuntza: 5. eta 6. mailako ikasleak
- DBH
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa



Kategoria bakoitzeko irabazleak Elkar liburu dendan erosketa egiteko txartela eskuratuko du: LH-ko irabazleak 100 eurokoa; DBH-koak 150 eurokoa; eta Batxilergo edo Lanbide Heziketakoak 200 eurokoa. Ekainaren amaieran jakinaraziko da irabazlea nor den. Sarien banaketa-ekitaldia berriz, irailean, datorren ikasturtearen hasieran egingo da, euskal idazle baten laguntzarekin.

EUSKARAZKO UDALEKUAK 11. URTEZ

Beste urte batez ere Bertiz partzuergo turistikoak Euskarazko Udalekuak antolatu ditu. 11 urte beteko ditu aurtengo egitasmoak, eta Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak kendu baditu ere, Arantzako aterpeak eta Beintza-Labaiengo aterpetxea-Orbelak ekimena-ekin jarraitu nahi dute. Beraz, aurreko urteetan bezalaxe, ikasleen euskara suspertu eta indartzeko asmoz, udako kanpaldiak antolatu dira: “Euskaraz Blai-Euskarazko Udalekuak”.

Bi aterpetxeek orain artean eskaini duten zerbitzu bera eskainiko dute aurtengoan ere:

- Iraupena: 6 egun (5 gau)
- Adina: LHko 8-12 urte eta DBHko 13-16 urte
- Asteak: ekainaren 21etik abuztuaren 28ra
- Plazak: 900 ikasle
- Aterpetxeak: Arantza (10 aste) eta Beintza (10 aste)
- Prezioa: 180 euro

MENDIA ETA EUSKARA ESKUTIK

Nafarroako Mendiak eta Herriak elkarteak mendia eta euskara uztartzen dituen egitasmoa sortu du eta maiatzaren jarriko da martxan Laudion (Araba). Egitasmo honen xede nagusia mendi-irteerak egitea eta irteera horietan eus-

kara erabiltzea dira. Hala, irteeretako mendi-gidariak euskaldunak izango dira; irteera bakoitzean euskaraz idatzitako txosten bat banatuko da, baita mendiarekin lotutako hiztegi txiki bat ere; eta euskara izango da irteera horietan erabiliko den hizkuntza bakarra.

Egitasmo hau 12 eta 16 urte arteko gazteei (eskoletako neska-mutilak), edota 17 eta 65 urte arteko edonori (euskal-

tegietako ikasleak edota beste edozein izan daiteke) dago zuzendua.

Lehen mendi-irteera martxoaren 28an egin zen. Hurrengoak berriz, datozen maiatzeko, ekaineko, urriko, azaroko eta abenduak zenbait asteburutan egingo dira. Besteak beste, orientazioa edota harkaitz eskalada egingo dira. Irteera bat berriz, Hiru Erregeen Mahaira egingo da.

CEGASA FABRICARÁ BATERÍAS PARA VEHÍCULOS ELÉCTRICOS

Cegasa aplicará su amplia experiencia para desarrollar baterías de iones de litio para vehículos eléctricos. Cegasa colabora en un proyecto de investigación con SEAT para el desarrollo del coche eléctrico.

Los coches eléctricos ya empiezan a llegar al mercado y las empresas del sector deben competir en este nuevo sector. Cegasa ya ha puesto en marcha el desarrollo de los primeros prototipos de baterías de litio para automóviles eléctricos y va a construir una planta piloto en un año. La producción en serie será en 2013.

La empresa, con más de 75 años fabricando pilas de consumo y con cientos de millones de baterías vendidas al año, ha comenzado a desarrollar un nuevo prototipo de iones de litio, que puede sustituir en un futuro al petróleo como combustible en los vehículos eléctricos.

La iniciativa se enmarca dentro de la participación de Cegasa en el Proyecto Verde, liderado por SEAT, además de otras numerosas iniciativas dentro del VII Programa Marco de la UE relacionados con estas tecnologías, como la *Green Car Initiative*.

Cegasa en esta etapa acomete la investigación y desarrollo de los primeros prototipos. En estos momentos está construyendo una planta piloto para la fabricación de electrodos y celdas, elementos básicos en la elaboración de estas baterías.

El proceso de fabricación de las celdas de iones de litio es similar al de las pilas alcalinas, aunque hay algunas diferencias como la necesidad de salas secas, por lo que en estos momentos están adaptando las instalaciones de Vitoria-Gasteiz.



CEGASA
GROUP

Aldizkari honen laguntzaile izan nahi duzu? Edota iragarkia jarri nahi duzu?

¿Quiere ser patrocinador de esta publicación o insertar publicidad en ella?

Veux-tu être partenaire de notre revue? Ou veux-tu mettre de la publicité?

komunikazioa@baieuskarari.org
(0034) 619 909882

Ezagutzen al duzu Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu nahi duen entitaterik?

¿Conoce alguna entidad que desee obtener el Certificado Bai Euskarari?
Connais-tu des organismes qui veulent obtenir le Label Bai Euskarari?

info@baieuskarari.org
902 430026 - 0559255041

Jarduna
administrazio zerbitzuak

**Euskara denon kontua da,
kontuak ere euskaraz**



Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:

NOLA BATERATU BRETOIERA ETA FRANTSESA?

Ya d'ar Brezhoneg, bretoieraren elkar-teak, bretoiera eta frantsesa batera nola erabili azaltzeko dokumentua argitaratu du; batez ere, udalei eta departamen-tuei zuzenduta. Horretarako errepidee-tako seinaleak bi hizkuntzatan ipintzen dituzten Europako beste zenbait herrial-deren ereduan oinarritu dira. Hala, euren premisa nagusia bi hizkuntzak maila be-rean aurkeztea da.

Ya d'ar Brezhoneg elkar-tearen ustez, sistema elebidun funtzionala, homoge-neoa eta kalitatezkoa lortzeko oinarritzko zazpi arau izan behar dira kontuan:

- Concevoir d'emblée son projet de ma-nière bilingue.
- Donner exactement la même qualité d'information aux lecteurs quelle que soit leur langue.
- Utiliser le même style (police, taille, couleur...).
- Dans les deux langues. Les différences de taille relèvent uniquement de la hié-rarquisation de l'information délivrée. De même, l'italique est réservé à une infor-mation de moindre importance, quelle que soit la langue.
- Rechercher toujours la symétrie dans la présentation.
- Ne pas répéter les mentions identiques.
- Dès que possible, corriger l'orthographe des noms de lieux pour diminuer le nom-bre des mentions.


. Localisation . Lec'hiañ



. Directionnel . Heñchañ



. Pré-signalisation . Rakheñchañ



4 NUEVAS ENTIDADES HAN OBTENIDO EL CERTIFICADO BAI EUSKARARI EN BARAÑAIN

36 empresas, comercios y entidades de todo tipo han obtenido el Certificado Bai Euskarari en Barañain. Una de ellas ha conseguido el nivel “Zerbitzua eta lana euskaraz” (“Servicio y trabajo en euskara”); 7 han obtenido el nivel “Zerbitzua euskaraz” (“Servicio en euskara”); y 28 el nivel básico “Bidean” (“En camino”). Hay que subrayar que en el presente año 4 nuevas entidades han obtenido el Certificado Bai Euskarari: Farmacia Cubillas, Electrónica Barañain, Samuel López Costa Centro Veterinario ABODI y la Charanga Igandea. Por otra parte, una entidad ha conseguido subir el nivel de su Certificado de “Bidean” a “Zerbitzua euskaraz”. Se trata de Haizea Kultur Elkartea.

Participaron en el acto el alcalde de Barañain Jose Antonio Mendive (UPN) y el director de Ziurtagiriaren Elkartea, Rober Gutiérrez, junto a representantes de los grupos municipales de PSN, IU y NaBai.



AEK-K BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ESKURATU DU

Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaile nagusiak Bai Euskarari Ziurtagiria jaso du Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariaren eskutik. “Zerbitzua eta lana euskaraz” Bai Euskarari Ziurtagiriaren maila gorena eskuratu du AEK-k.



facebook

4.000 LAGUNERA BIDEAN

Bai Euskarari profilak ia 4.000 lagun lortu ditu Facebook-en. 2009ko ekainean sortu zenetik etengabe hazi da eta horretan txehardu. Profilaren ordezt, orrialdea izango du hemendik aurrera Bai Euskarari-k, Ziurtagiriaren Elkartearen nahiz Bai Euskarari Ziurtagiriaren inguruko informazioa zuei helarazteko.

Bai Euskarari Ziurtagiria


balioa eta berrikuntza · prestige et innovation

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

ziurtagiriarenelkartea

902 430026

baieuskarari.org



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

ARRASATE - ANDOAIN
- BERRIOZAR - DERIO

Tel. 943 711 847
emun@emun.com